

CONCURSO LITERARIO JUVENIL DE PAMPLONA IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA 2019

EUSKERA POESIA 17-18 URTE

BIGARREN SARIA:

Bakardade mezua Uxue Garcia Uriaque

Sustraiei
begira,
haratago noa.

Pentsamenduekin
korapilatuz,
azazkalak zanpatuz.

Ezpainei
hozka egiten diet,
badakidana ziurtatuz.

Errealitatea
garratza izan,
bada.

CONCURSO LITERARIO JUVENIL DE PAMPLONA | IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

2019

EUSKERA POESÍA 17-18 URTE

BIGARREN SARIA

Bizitzeko
gogo eza
elurretan barrena.

Ihes egindako ideiek
kolpatzen naute.
Gorrotoa.

Ez ditut ahazten.

Behin nire buruaren atal izan zirenak.

Ezgaitasuna
muga bakartzat
hartuta.

Sumindu nindutenak,
badira.

Ni
izan nintzen